

Getxo >MEETING<



Getxo MEETING apirilak 11

Ekitaldi bati buruz pentsatzea erraza da, antolatzea... ere bai?

Badakizu, negozioaren urteurrena, zerbitzu berri bat ateratzea, “dena delakoaren nazioarteko eguna”... edozein aitzakiak balio dezake ekitaldi bat martxan jartzeko, eta horrek zure marka elikatzen, errutinatik ateratzen eta aukera berriak aztertzen lagundu ahal dizu.

Antolatzeak ez du esan nahi salmentak ekarriko dizkizunik zuzenean. Mugimendua sortzen du, zure negozioaz hitz egin dezaten lortzen du, bai eta zure hartzailleek arreta une positibo bat eskaintzea ere, laburra izan arren. Bertaratzen direnentzako edo sare sozialetan ikusten dutenentzako.

Baina horretarako plan bat osatu behar da.

Galderen zerrenda honekin, argiago izango duzu eta ekiteko motibazioa irabaziko duzu.

Zertarako? Zein da zure benetako helburua? Zein da lortu nahi duzun eragin zehatza? (batzuetan kanpora begirako helburu bat eta ezkutatuak beste bat, inplizitua, egoten dira; biak detektatu behar dira gure itxaropenak egokitzeko)

Norentzat? Zure hartzailleak gero eta gehiago zehaztu, orduan eta errazagoa izango da horien bila joatea. “Familiak” kontzeptu oso zabala da, lausoa. “Bidaiatzea gustuko duten familiak”, “0 urteko ume bat duten familiak”, “familia multikulturalak” edo “ingurumenaz kezkatzen diren familiak” bezalako deskribapenek informazio gehiago ematen digute eta bilaketa asko fintzen dute, bai zabalpenerako aliatuak bilatzeko, bai eta sare sozialetan kanpainak sortzeko orduan ere.

Mezu gakoak: Zure hartzailleek jasoko dituzten hiru onura zehaztu eta ordena itzazu garrantziaren arabera. Denetarikoa edukia idazteko balio izango dizu.

Euroak, diru-sarrerak eta gastuak: Zuk antolatzen duzun ekitaldi bat da? Dirua jarri duten erakunde instituzionalak edo pribatuak egon dira? Sarreraren salmentaren bidez finantzatzen da? Nire enpresa sustatzeko inbertsio “mini” bat da? Alderdi ekonomikoaren lehen zirriborro bat egiteak ekintzari neurria behar bezala hartzeko balio

izango dizu. Beti komeni da diru-sarrerei eta gastuei buruzko erabakiak hartzea eta egoera kontrolpean izatea.

Argazkia: Zein izango da ekitaldia laburtzen duen argazkia? Beti pentsatu behar da ekitaldi horrek *une goren bat* izan behar duela, argazki bat edo bideo bat egin eta zabaltzeko moduko urrezko instante bat. Osagarri emozional bat duen irudia izan behar da, sareetan zabaltzean zure hartzaileekin konektatzen lagunduko dizuna.

Kartelerako edo *mailing*-erako informazioa. Badituzu erantzun guztiak?

Nori zuzenduta dago?

Noiz? (1)

Non? (2)

Izen-emateak (3)

Sare sozialak

Sarreraren prezioa

- (1) Aukeratzen duzun eguna eta ordua egokiak izan behar dira zure publikoarentzat, eta kontuan izan behar dituzu inguruko beste ekitaldi batzuk, zureari modu positiboan edo negatiboan eragin ahal dietenak.
- (2) Ekitaldi bat erreal izaten hasten da lekua erreserbatzen dugun unetik aurrera. Beste dena aieruak dira.
- (3) Eventbrite bezalako plataformek izen-emate prozesua errazten dute, hitzordua gogorarazten dute eta zabalpena errazteko beste alderdi batzuk eskaintzen dituzte.

Nolako babesa behar dut? Ekonomikoa edo lagundu ahal dizuten pertsonena. Beren esperientzia dela eta aholkuak eman ahal dizkizutenak, **Getxolanen aholkularitza*...**

Sareko komunikazioa: Pentsatu zure ekitaldirako berriaz sortutako *#hashtag* bat, eta gaiarekin lotu daitezkeen beste batzuk. Aipamenak zein erakunderi egingo dizkiezun ere pentsatu.

Prentsa: Uste baduzu zure ekitaldia komunikabideetan azaltzeko modukoa dela, egin ahalegina. Egin prentsa-ohar bat, argi utziko duena zergatik den albiste bihurtzeko moduko gertaera bat. Gogortu dokumentuan 5Wak (What, Who, Where...), harremanetarako datuak eta albistea ilustratzeko argazkiak sartzea.

Argazkiak eta bideoak: Ekitaldi on batean argazki txarrak egitea pena bat da. Ez ahaztu detaile hori.

Plana: Nola hasiko naiz honekin guztiarekin? Data apuntatuta duzunean eta espazioa erabilgarri edo aurrez erreserbatuta dagoela dakizunean, atzerantz prestatzen hasi behar zara.

Ekitaldia maiatzaren 30ean baldin bada, bi egun lehenago, hilaren 28an, konfirmatuta izan behar duzu nortzuk bertaratuko diren. Horretarako, izen-emateko epea egotekotan, maiatzaren 14an ireki beharko da... eta horrela gainerakoak. Horrek ideia bat emango dizu jakiteko ea noizko izan behar dituzun eginda ekitaldia eta horren onurak behar bezala deskribatuko dituen testua.

Idea osatu baduzu, zerbait zehatza baldin baduzu, bi hilabete lehenago antolatzea aukera errealista da. Edo hilabete lehenago, benetan lan handia egingo baduzu.

Baliabide gutxiarekin, imajinazioarekin eta zure harreman sareari esker, ekitaldi txiki bat egin ahal izango duzu, aldi berean ahaztezina izango dena.

Ekitaldi bati buruz pentsatzea erraza da, eta antolatzea? ... zirrargarria!

**Getxolanek enpresa-kudeaketako aholkularitza pertsonalizatua eta espazio erabilgarriak eskaintzen dizkie udalerriko enpresei doako ekitaldiak antolatzeko (Getxolanen izango duzu baldintzei buruzko informazioa)*